

araba

● **Jaiak.** Ospakizun bikainak prestatu dituzte astebekeara honetarako Arabako zenbait herrixketan. Guk dakiguzen behintzat, Ullibarri Jauregi, Sendadiano, Marieta, Leziñana del Camino, Villafranca, Andein, Fuidio, Ali eta Ordoñan ospatuko dira jaiak egun hauetan. Guztietan gau pasa ederrak, herri kirol frogak ugari eta musikaldi politik izango dira.

● **Merkatariak.** Gasteizko San Prudentzio kaleko merkatariek berriro eraman zituzten atzo beren kekak Udaletxera. Hauek behin eta berriro ari dira protestatzen kale hori peonalizatu zenetik klienteak galtzen joan direla. Udaletxeak, ordez, ez du sinisten argudio horiek eta egia badira frogatzen ditazela, esaten die. Momentuz, argi dagoena zera da: San Prudentzio kalea orain arte, hau da kotxerik gabe, jarraituko dela.

● **Argitarapenak.** Publikapen ugari agertzen ari dira egun hauetan Araban. Arabako kuxaren "Alava en sus manos" izeneko kolezioa jarraituz, atzo kaleratu zen 10.alea "Arabatar abizenak" dagokion faszikulua hain zuzen. Bestalde Lantarón, herriko gazte taldeak "Gaztelu" aldizkariaren hirugarren alea agertu du. Azkenik, aipa dezagun, gaur Diputazioako jauregian aurkeztuko den "Museo de Arqueología" delako obra.

● **Udaletxea.** Gasteizko Udalak bi sesio ospatuko ditu gaur. Bata, Udak Batzorde Iraunkorrarena eta bestea ohizko plenoarena. Tratatu diren asuntuen artean, aipa ditzagun zenbait dirulaguntzen kontzesioak, PSOEko mozio bat "Consejo Municipal Escolar" delako elkarte berehala sor dadin eta Mairuelegorretako jaialdirako dirulaguntza.

Bikoitz

bizkaia

● **Ogia.** Egunoroko ogia garestiagotu egingo zaigu. Ehuneko 10 bat igoko baitira ogiarene prezioa. Ogiatz gain ogirina ere igoko egingo da noski. Eta hori gutxi balitz, Bilbo aldean ura ere igo omen delakoan. Uren Partzuergoak, azken urteotan ez duela uraren preziorik jaso eta, noski, bestek jasotzen badute, behelaldean ezin egon. Ehuneko 15 edota 20 igoko omen.

● **Itsas Soinua.** Aurten Lekeitioko Itsas Soinuak bere Nazioarteko V. Kontzertua eskainiko du Abuztuan, bederatzietan zehar. Hori aurkezteko bihar larunbatez, kontzertu bat, sarrera kontzertua alegia, eskainiko du Lekeitioko Andra Mari Elizan. Usandizagaren Mari Domingi, Bello Porturen Soule eta Azkueren organo saioa. Amaitzeko, Gorka Sierraren zuzendaritzapean, "Messe", lau abotsetan eta bi organoz.

● **Sopuerta.** Bizkaiko adimen urriko sakonak badute beren egoitza. Martxotik zabalik dago, beraz, Sopuertako "Haizea". Orain, atzo, hain zuzen ere, inauguratua izan da. Hogei plaza ditu. Adineko urrituztat da, eta orain daudenak 20 urtetatik 54etarakoak dira.

● **Akorda.** Ibarangeluko Akordan, Santamañak ospatuko dira bihardanik astelheenera. Jai alaiak izango direlakoan: sokamuturra, zaldi probak, bertso-lari saioa, txirriindulari lasterketak, gau dantzak, erromeriak.

● **Barakaldo.** Barakaldon ere jaietarako ordua heldu da. Gaur bertan hasiko dira, esku programa iaioak aditzera ematen duenez. 7etan izango da jai-tisiera. San Bizentetik Udaletxera. Eta gauean, legezko berbera. Zornotzan ere badira jaiak. Gaur hasten direnak alegia. Zornotzako berberan, beraz, Ekaitz eta Alirón taldeak arituko dira.

Etxepare

gipuzkoa

● **Arrasate.** Donostiako Nazioarteko Jazz Jaieldiarekin batera Arrasaten hiru kontzertu emango dira Uztailaren 27,28 eta 29an. Checoslovaquiatik, Suitzatik eta Galiziatik etorriko dira honako hiru talde hauek "Oldtime Jazzband", "Zbigniew Lawandowski" eta "Clunia". Udaletxeak 100.000 pezeta emango ditu antolaketa eta emanaldiak 2 behintzat Zine Gurean eta bestea ziur ez bada ere, Monterrón parkean izango da.

● **Arrua-behean.** Zestoako Udaletxearen laguntzarekin Karmengo festak haundikiro ospatuko asmatan dira, arruarrak non Uztailaren 15,16,17,12 eta 23an egun hauetan festak antolatuko baitituzte. Gaur beraz, emango zaie hasera festei goizeko 9etan dianarekin, eguerdi aldera ari lehiaketak eta jolasak. Seirak aldera txokolate jana haurrentzat; 8,30etan suziri, buruhandi eta erraldoiak Xerra eta Carmelo soinu-joleekin. Iluntzeko 10etan tanborrada eta 12ak inguruan suzko zuzena eta ondoren berbera Nekez taldearekin. Goizeko 5etan baratuzuri sopakin emango zaiolarik aurrengo festa egunari amaiera.

● **Elgoibar.** Udaletxea eta kanposantua monumentu nazionalak izango direla adierazten du Eusko Jaurlaritzak urte amaierarako. Hori gutxi ez delarik Elgoibarrek badu arkitektura barrokoan garrantzia duen eliza ere. Eta Ibero anaiak, azpeitiar arkitekto osepsuak egin zituzte-larik bertako dorre, bobeda eta arkuen planoak.

● **Alegia.** Gaur, ostirala, Ordizako Santa Ana korakal kontzertua eskaini asmoz da, Diputazioak antolatuturiko Gipuzkoako koralen jaialdien birruan. Gaur Karmen behera denez, herriko festei hasiera emango zaio ekitaldi honetan Parrokian, ilunabarreko 9etan.

Etorra

nafarroa

● **Tafalla.** Udalbatzak berriki egin zuten bileran besteak beste zera etabaidatu zuen; herritarrek plenoetan hitzegin dezaketen ala ez. Oso etabaidatua izan zen Herri Batasunak aurkeztu zuen mozioa zeren aurreko alkateak onartzen bait zuen herritarrek hitzegitea eta oraingoak, Valeriano Beguek, aditzera eman du berak ez duela inongo obligazioirik berdin jarraitzeko. Plenoetan parte hartzeko honako baldintzak bete behar ditu; eskaria idatziz egitea; plenoa mostua gelditzea une horretan eta parte hartze hori eguneko zerrendan sartu den gaiari buruz lotua izan behar du. garbi gelditzen da beraz herritarrek parte hartzea oso noizbehinkoa izango dela.

● **Isaba.** Urtero jendea erruz urreratzen da kanpinakin oporrrak pasatzera Isabara. Hori dela eta Isabako udaletxeak arau batzuk betetzea eskatuko die bertara etortzen diren kanpinzaleei. Kanpin municipala eraikitzen ari badira ere oraindik ez dira bertako obrak amaitu eta horregatik baimena eskatuz kanpina jarri ahal izango da Isaba inguruan. Dena dela toki jakinetan bakarrik jar daitezke kanpina, horretarako dutxak, komunak zabor zerbitzuak izango direlarik. Interesatuak bazaudete beraz a' rez Isabako Udaletxera jo behar duzue bertan baimena eskatuz eta garbitasuneko arauak bete behar direlarik, zeren aurreko urtetako esperientziak ez baitira oso onuragarriak izan zenbait kasutan behintzat. Udaletxeak Mintxate, Belaberce eta Belagua inguruetan zer tokitatik zer tokitara kanpina jar daitezkeen ongi zehazten du eta horietatik at ez da posible izango kanpinik zabaltea.

Etxezuri

iparraldea

● **Euskal Departamenduaren** aldeko hautietan batasunaren bulego berria izendatu dute Eletako herriko etxean. Lehendakari da: Aniotz Dehele, Sarako auzapeza eta ohorekiko lehendakari Paul Dudoulier. Lehendakari ordezkari dira: Eppherre arperatzeko alkatea Esponda Senperekoa, Dassante uztaiztarra, Harizmendi anderea Donamartirikoa, idazkari da Daniel Tanglelg hazpandarra eta diruzaina Arbelbide anderea, Eletako auzapeza (alkatea).

● **Herri Taldeek,** ageri batean, Baionako Radio France irratiari zabaldu den notzia baten kontra asaldatzen dira. Pilipe Etxeberri erran zuen: "port parole politiqui des cagouards basques" Herri Taldeak direla. Esaten duten, berriz ere Herri Taldeek beren helburuak politikaren bidez erdietsiko dituztela eta ez borroka armataruen bidez. Iparretarrak mugimenduak bezala. Bestalde salatzen dituzte momentu berean turismoaren efektu gaiztoak eta honen inportantzia ekonomikoa gutxietzen dute. Beren kanpina turismo baten kontra segituko dutela berriz erraten dute.

● **Aldizkari berri** bat laster izanen dugu Iparraldean: ATEKA ezker abertzaleen hilabetekaria. Euskaldunak, EHAF alderdi politikoaren hilabetekaria izan zen zazpi urtez, larogeita bata arte, geroztik ezker abertzaleak ez zuen holako espresio biderik. Talde berri batek proiektu hori lantzen ari da. Arpidedun izan nahi dutenentzat: 100 franko edo 2.000 pezeta bidali behar dira helbide honetara: Mintza, 5. Visitandines karria 64100 Baiona.

Etxezaharreta

Pesimismoa negoziaketari buruz

Atzo, hementxe bertan, JAKIN errebista ederraren zentsio txikia egin zen. Gaur, ondokit datorren artikulu hau, ale beretik hartu dugu, hau da, uztailea-iraila, 28. alea, 1983.etik. "Pesimismoa negoziaketari buruz" izenburuarekin heldu da Joxe Azurmendiren lan hau "Orain eta Hemen" sailean.

"Egunotan zenbait mahain-inguru Euskal Herrietan egin da, negoziaketa gai hartuta. Arrazoia, edo aitzakia, *Una historia de incomprensión exige negociar* liburuak eman du: "80 personas de la cultura y la política opinan sobre la negociación entre ETA, Gobierno Vasco y Gobierno Español".

Argitarazlea **Herria 2000** Eliza-ko taldea izan da. 1979an argitaratua zuen beste bat, *Euskadi, la paz es posible*, administrazioak sekuestratu egin zuena: bakea erazazko posible izan zedin, eta arrapa-

ladan saldua halere (namar mila ale). Berriz ere bakea da kontua, baina, zehazkiago, negoziaketa oraino honetan.

Liburua baino lehen politikoen negoziaketa-asmoak egon ziren eta asmo haien frakasua, "besteren kulpaz" dakizunez.

Negoziketarako baldintzak ez dakigu aski helduta egongo ere ziren, politikoko berak berde zeuden behintzat. Frakasu hark, nik uste, oraingo mahain-inguruok oso kondizionatu ditu.

Politiko gutxi ibili da mahain-inguruotan eta irakasle, idazle, intelektual asko. Ondokiki da, ordea, intelektualek ez daukatea zer eginik arlo horretan, formak zaindu eta edukinari ihes egin ez bada. Kontsiderazio antropologiko, psikologiko, filosofiko asko entzun dugu, eskuinetik nahiz ezkerretik patata beroari putz egin ez eta asmatu ezinez nondik heldu. Oso ondo hitzegin

da, hitzegin beharrik ez zegoenaz.

Garbi dago hori ez dela intelektualezako asuntua. Garbiago, gaia zuzenean planteatzeko guztien enbarazoa. "Es como si avanzáramos por un camino minado, -idatzit du J. Ibañezek liburuan. *De ahí el curso zig-zagueante del discurso*".

Nire ustez, garri honetako go-goeta zehar-meharkarazten duena, problema egiaz non dagoen ezin esateraino dispersatzen duena batez ere, ez da ETARI buruz garbi hitzegiteko enbarazoa bakarrik (eta, garbi eta jakinaren gainean hitzegiteko, lehenengoa datu garbiak edukitzea izango litzateke, itxuraz inork ez daukana). Gehiago da, Euskal Herrian berderen, berriro dagoen inpresioa, egiazko problema ez dela ETA baina berriz ere Madril-dik ez dagoela ezer itxaronetik eta fuintsean dena alferrik dela. Negoziketaren kontzeptuare-

kin ordea, problema guztia ETAn jarri nahi dela, ematen du. Eta hori mahain-inguru guztietan espreski ukatu du.

Horrela, negoziaketari buruzko mintzaldiotan ez da negoziaketaz hitzeginen, negoziaketaren inguruko guztiaz baino. Mahats hori berde dago. Nahi ere, jende dexentek agertu du, inolako lotsarik gabe, ez duela negoziaketarik ezertarako nahi. Ez dio ikusten sentidurik. Harritzenago zuzkeena, azken finean: ia inork ez du esperantzarik. Pesimismoa dago.

Eta dago, pesimismoa, azkenean pesimismo geroz eta haundiagoa dagoelako, herri honetako problema larriaren soluziorik izan dezaketela. Estatuaren bide beti behaztopatu eta bihurri honetatik. Hainbat gutxiago izango da problematikoa biolentzia, bake estatutarioa geroz eta problematikoa ageri bada.

Joxe AZURMENDI

bertso berriak

Hor konpon gaia berez ez dezu oso txukun da abilla, hitz hoi delako hamaika lagun munduan ba degu hilla, esperantzarik gabetan dator nun naitik sarri makilla ba dakitela nola prestatu guri hor sarri opilla danok batu saia gaitzen askatasunaren billa.

Herri libre bat nai degula hori etzazute azu Euskadi eta España horra egin dizkigute nastu dirua eta famaren billa kontzientzirik narrastu nor beretzako legeak zabal zuzentzat berriz etzu egia sarri ukatuzten da gero gezurra babestu

Hor konpon sarri gaur esaten du ondo jaten du gizonak eta zer dio giltzape baten erdi ustelduz dagonak etortzen dira herriko jaiak era berean gabonak beren haurrikan laztandu gabe guraso aiton amonak gaur haienztako zenu txaloak eta nere zorianak.

Koldo ZELAIJA